

(1) **LANKI** KUADERNOA

AUTOERAKETA GLOBALITATEAN

AUTOERAKETA EKONOMIKOAREN KOKAPENA EGUNGO MUNDUAN



(1) **LANKI** KUADERNOA

AURKIBIDEA

AUTOERAKETA GLOBALITATEAN

1. Autoeraketa kontzeptuaz

1.1. Kontzeptua	4 orr.
1.2. <i>Continuum</i> izaera eta gamak	4 orr.
1.3. Autoeraketa ekonomikoaz	6 orr.

2. Autoeraketa ekonomikoaren kokapena egungo globalitatean

2.1. Erantzunen dibertsitatearen unean	7 orr.
2.2. Demokraziaren paradigma zabalean	9 orr.
2.3. Paradoxaren lurretan	10 orr.
2.4. Autoeraketaren gizarte-proiektuaren norabidean	15 orr.

3. Autoeraketa ekonomikoaren potentzialak eta mugak

3.1. Gizabanakoaren eta komunitatearen arteko oreka artikulatzeko potentziala	22 orr.
3.2. Garapenerako tresna izateko potentziala	22 orr.
3.3. Sustraitzeko potentziala	25 orr.
3.4. Enplegua sortzeko eta enpleguari eusteko potentziala	25 orr.
3.5. Partehartze integralera hurbiltzeko potentziala	26 orr.
3.6. Gizarte-konpromisoarekin jardunbide ekonomikoari mugak jartzeko potentziala	28 orr.
3.7. Interkooperaziorako potentziala	29 orr.
3.8. Elkartasun globalerako potentziala	30 orr.

AUTOERAKETA EKONOMIKOAREN ARRISKU ETA MUGA BATZUK	31 orr.
--	----------------

1. AUTOERAKETA KONTZEPTUAZ

1.1. Kontzeptua

Dei diezaiogun *autonomia* pertsona eta komunitateen jarduna kanpoko eragileen determinaziotik (heteronomia egoeretatik) askatzeari. Eragile arrotzek administratutako subjektua izan barik, subjektu autonomoa bere ekinbidea administratzeko gai den pertsona edota komunitatea izango litzateke.

Autonomiaren definizio xume honetatik hurbilduko gara *autoeraketaren* adierara. *Autoeraketa*, guk erabili nahi dugun zentzuan, autonomiadun eraketa da, autonomiatik sortua eta autonomia sortzen duena. Pertsonen eta komunitateen autonomian oinarritutako eraketari deituko diogu, beraz, autoeraketa. Beste era batera esanda, pertsonen *erabakimenean* (erabaki ahalmenean) oinarritutako *eraketa* (prozesua) edota *erakunde*a (prozesu horren emaitza eta eragile den sorkin kolektiboa) ditugu begi aurrean, autoeraketaz ari garenean.



Pertsonen eta komunitateen autonomian oinarritutako eraketari deituko diogu autoeraketa.

Autonomia, *erabakimen*, *eraketa* eta *erakunde* kontzeptuen bidez zedarritu dugu zertxobait autoeraketaren tokia: pertsona eta komunitateen autonomia eta erabakimenean oinarritutako eraketa eta erakundeak.

Autonomia eta erabakimenari lotutako eraketa bezala ulertuta, autoeraketa kontzeptua dugu zabalena aurrizki bereko beste hainbat kontzepturen artean, eta hauek bere baitan hartzen ditu: eraketa honek *autoarauketa* prozesuak barnehartzen ditu, *autoantolaketatik* abiatzen da, *autokudeaketa* eskatzen du etengabe, *autogobernu* edo *autodeterminazio* pertsonal eta kolektiboa du ipar.

1.2. *Continuum* izaera eta gamak

Horrela definitutako autoeraketa, errealitatean *continuum* bat da. Erakundeen autoeraketa maila grisen eskala bat da. Erakunde autoeratutzat jo litekeen

idealeranzko hurbiltze edo urruntzeaz mintzatu beharko genuke, beraz, baieztapenezko eta ukaziozko sailkapen zurrunik egin gabe.

Hala ere, continuum izaera hori aitortzeak autoeraketa edonola erabiltzera lerra gaitzake, kontzeptuaren pisua eta errigorea lorrintzeraino. Izan ere, neurri batean ia edozerk aldarrika dezake izaera autoeratuia. Maila mikroan ulerturik, edozein gizarte-sistemak neurriren batean erabil lezakeen antolatze-formula bat dela uler liteke. Baina esparruren bateko autonomia-mailaren bat duen edozeri autoeraketa deitzen badiogu kontzeptuak bere indarra galduko du errealitate desberdin eta eraldatzaileak izendatzeko.

Izan ere, autoeraketa zenbateraino da maila mikroan uler eta aplikatu daitezkeen antolatze-formula bat, edozein gizarte-sistemak neurri batean edo bestean bultza lezakeena (egungo sistema kapitalistak adibidez)? Eta zenbateraino da maila mikrotik makroraino doan eredu bat, gizarte-egitasmo oso bat? Modu zakarragoan adibide bat jarrita: kapitalismoaren tresna bat da ala kapitalismoaren alternatiba bat? Hemen, grisen eskalatik haratago, koloreetara pasatzen gara: autoeraketa horren ipar eta eraldasmoetan dauden uhin-frekuentzia desberdinetara.

Zedarritu egin behar dira autoeraketaren funtsa, eskakizunak, mailak eta -baladin badu- norakoa edo iparra, bere continuum-izaera aitorturik ere. Grisen eskala eta koloreak konbinatu behar, horretarako.

 Autoeraketa paradigma oso bezala uler liteke: maila txikiko antolaketa-formulatik gizarte-proiekturainoko ereduia.

Kolore gamaren muturrik gorrienean (edo infragorrian oraindik?), autoeraketa paradigma oso bezala ulertuko genuke: maila txikiko antolaketatik hasirik gizarte-proiekturainoko ereduia. Pertsona eta komunitateen erabakimenean oinarriturik, gizarte-bizitzako eremu guztiak (hezkuntza, politika, ekonomia, gizarte-mugimenduak, kultura) erabakimen autonomoaren hariz lotzen dituen paradigma zabala.

1.3. Autoeraketa ekonomikoaz

Lausoki bada ere kontzeptua modu honetan zedarriturik, autoeraketa ekonomikoan jarri nahi genuke lan honetako arreta. Enpresez edota erakunde ekonomikoez ari gara, beraz.

Gizarte ekonomia deitzen zaion esparruan kokatu beharko genuke, hasteko. Gizarte ekonomia, batetik, barrura begira antolatzeko modu bat da eta, bestetik, kanpora begira merkatuan eta gizartean jokatzeko modu bat. Antolatzeko eta jokatzeko modu hauetan, autoeraketaren grisen eskalarekin egiten dugu topo. Izan ere, gizarte ekonomiaren baitan gaur egun oso autoeraketa gradu eta era desberdineko enpresak sartzen dira.

Gizarte ekonomia, batetik, barrura begira antolatzeko modu bat da eta, bestetik, kanpora begira merkatuan eta gizartean jokatzeko modu bat.

Har ditzagun aurreko atalean aipatu dugun *erabakimen* hori gauzatzeko hiru esparru: jabetzan partehartzea, irabazietan partehartzea eta kudeaketan partehartzea. Parte hartzeko dimentsio desberdin hauetan gradu oso desberdineko enpresak daude ekonomia sozialean, langileei akzioetan partehartze mugatu bat ematen dioten formuletatik hasita, erabakimenaren hiru esparruotan gradu exijenteak betetzen dituzten zenbait kooperatibetaraino.

Bestetik, enpresen gizarte-jardunari eta eraldaketa-bokazioari dagokionez ere aldeak handiak dira. Koloreen gamaz ari gara, hemen ere. Autoeraketa ekonomikoan hiru joera nagusi bereiztu izan dituzte hainbat autorek. Batetik, kolore gamarik garaienean, sistema sozioekonomiko alternatiboa bilatzen dutenak leudeke. Bestetik, indarrean dagoen sisteman demokrazia maila garaiagoa lortzeko tresna izan nahi dutenak. Hirugarrenik, helburu apalagoekin, zenbait arazo konpontzeko bokazioa dutenak (langabezia, adibidez), haratagoko helbururik jarri gabe.

2. AUTOERAKETA EKONOMIKOAREN KOKAPENA EGUNGO GLOBALITATEAN

Autoeraketa ekonomikoa egungo globalitatean kokatzen hasita lau kokagune, kokaune edo kokamodu formulatu ditugu, elkarrekin lotura dutenak. 1) Erantzunen dibertsitatearen unean, 2) demokraziaren paradigma zabalean, 3) paradoxaren lurretan eta 4) autoeraketaren gizarte-proiektuaren norabidean ikusten dugu autoeraketa ekonomikoa. Aski kokapen konplexua baina, gure ustez, dagoen errealitatean oin harturik norabide bat marka lezakeena.

2.1. Erantzunen dibertsitatearen unean

Egungo globalitatearen argazkiak badu hondoko irudi bat: pentsamendu *bakarraren* indartzea eta uniformizazioa. Uniformizazio horren aurrean, ez dirudi sistema alternatibo oso bat kontrajartzeko baldintzak daudenik une historiko honetan. Giza-duintasuna ipartzat duten sentsibilitateen intuizioa beste bat izan daiteke: dibertsitateari eustea, dibertsitatea garatzea.

Dibertsitatea garatzeko intuizio honek hainbat aurpegi ditu: kultura eta hizkuntzen dibertsitatea, biodibertsitatea, gizarte-mugimenduen dibertsitatea, antolakuntza moduen dibertsitatea, ikuspegi eta planteamendu sozialen dibertsitatea... Gure lan honetan, arlo zehatz bat interesatzen zaigu: esperientzia sozio-ekonomikoen dibertsitatea. Esperientzia sozio-ekonomikoen arloa, jakina, beste guztiekin lotuta dago, eta garrantzi handiko tokia betetzen du.

Alternatiba handi eta absoluturik ezean, alternatiben multifokalitatea eskatzen duke une historiko honek, eta hor kokatuko dugu autoeraketa ekonomikoren gitekoa.

Uniformizazioaren aurrean dibertsitatea garatzeko intuizioaren hariari jarraiki, arlo sozio-ekonomikoan ere erantzunak behar dira, kapitalaren logikatik haratago gauzak beste era batera egin ote daitezkeen dioen galderari emandako

erantzunak, erantzun askotarikoak, esperientziak. Alternatiba handi eta absoluturik ez eta *alternatiben multifokalitatea* eskatzen duke une historiko honek, eta hor kokatuko dugu autoeraketa ekonomikoak daukan egitekoa. Izan ere, une honetako gakoetako bat esperientzia propioa eta askotarikoak bultzatzea izanik, bete betean bat dator hau autoeraketa ekonomikoaren izaerarekin.

Esperientzia sozio-ekonomikoen dibertsitate honek baditu bi dimentsio globalitateari begira. Batetik, orain eta hemen ekarpen dira, errealitate, pertsona askoren garapenerako bide. Bestetik, *hazitoki* dira, erreserba. Zeren hazitoki? Etorkizuneko erantzunen hazitoki, bestelako antolaketa-moduen esperimentazio-gune, alternatiben ernamuinen erreserba. Ekonomia ulertzeko eran, besteekiko erlazioak eraikitzeko eran eta gizarte-bizitza artikulatzeko eran etorkizuneko erantzunen erreserba gisan duen potentziala azpimarratuko dugu, beraz, autoeraketa ekonomikoan.



Ekonomia ulertzeko eran eta harremanak artikulatzeko eran etorkizuneko erantzunen erreserba edo hazitoki dira autoeraketa ekonomikoaren inguruko esperientzia sozio-ekonomioak.

EREDU PROPIO AUTOZENTRATUAK

Metaketaren eta kapitalaren maximizazioaren logika orohartzaitetik irtenda, garapen eredu berrien bilaketak aspektu kualitatiboak indartzea esan nahi du (logika pilatzaile-kuantitatibotik haratago), ekologikoki eta sozialki eutsigarriak diren ereduak landuz. Aurreko atalean esan dugun moduan, jardun multifokala edo polizentrikoa eskatzen du honek. Esperientzien dibertsitatearen beste formulazio bat da esperientzia *propioa*. Erantzun propioen aniztasunak baitakar dibertsitatea.

Autoeraketa ekonomikoak definizioz dakar izaera propioa. Pertsonen erabakimen autonomoan oinarritzeak berarekin lotuta dakar txikitasunaren edo gertukotasunaren indartzea. Eraikuntza lokalean jartzen du indarra autoeraketak,

behetik gorako eredu deszentralizatua sortzen du.

Komunitatea bera da erreferentzi puntu nagusi, eta bere beharrek markatzen dute prozesua, ez hainbeste kanpotik ezarritako logika eta interesek.

Txikitasunetik eta eraikuntza lokaletik abiatutako behetik-gorakotasun honen beste aurpegi bat da izaera *autozentratua*. Barnetik abiatuta eta barneko beharrei erantzunez jarduten dute erakunde autoeratuak. Komunitatea bera da erreferentzi puntu nagusi, eta bere beharrek markatzen dute prozesua, ez hainbeste kanpotik ezarritako logika eta interesek.¹

Eredu propio eta autozentratuen garapena, egungo globalitatean, botere eta merkatu logikek baztertutakoentzako irtenbide bat da, eta dateke. Esparru txiki eta lokalen indartze-bide bat.

2.2. Demokraziaren paradigma zabalean

Gaur egun nagusi den demokraziaren adiera politiko-formaletik haratago, demokraziaren estadiorik sakon eta zabalenera jotzen badugu, hor bere berezko tokia aurkituko du autoeraketa ekonomikoak.

Bizi dugun demokraziaren estadia ilustratzeko balio dezake ohartzeak oro har munduko biztanle gehienek beren Estatuko lehendakaria hautatzeko boto-eskubide formala badutela, baina ez dutela, adibidez, beren enpresako lehendakaria hautatzeko boto-eskubide formalik. Beste kontu bat da, jakina,

(1) Ondoren, ikusi beharko da barne-behar horiek nola lotzen diren beste komunitateen beharrek, elkarlan eta interdependentzia klabeetan, elkartasunaren balioa gauzatuz. Txikitasunaren eta esperientzien izaera autonomo eta propioaren azpimarratze honek, hala ere, ez du albo batera uzten berauek sareetan elkartzeko eta trinkotzeko aukera eta, seguruaski, beharra. Beste era batera esanda, autodependentziaren ideian oinarritzen da autoeraketa ekonomikoa, baina berau interdependentziaren ideiarekin osatuz.

Estatuko lehendakaria hautatzeko boto-eskubide formal horrek ze mediatizazio dituen tartean, eta demokrazia errepresentatibo-formalaren mugak zein diren.

Jakina denez, botere-metaketa da egungo garapen-ereduaren gakoetako bat. Garapen bidezkoago eta eutsigarriago batek boterea desmetatzea eskatzen du, deszentralizatzea, erabaki esparruak hurbiltzea. Demokrazia partehartzailan sakontzea, azken finean.

 Demokrazia politikoa indartu eta eraberritzearen edota gizarte zibila indartzearen norabide berean doa, eta norabide horretan ekarpen bereziak egiten ditu autoeraketa ekonomikoak.

Demokraziaren paradigma zabalak hainbat esparru hartzen ditu bere baitan (politikoa, soziala, ekonomikoa) eta horietako bakoitzean eredu partehartzailera hurbiltzea du ipar. Autoeraketa ekonomikoa hortxe kokatzen da: demokraziaren paradigma sakon eta zabala esparru ekonomikoan gauzatze-ko ahalegin horretan. Bere baitan atxikirik dakar ekonomia-indarren deszentralizatzea, erabaki esparruen gerturatzea, partehartzearen ideia, eta demokraziari lotutako beste hainbat prozeduraren praktika. Bere ekarpena, beraz, demokrazia politikoa indartu eta eraberritzearen edota gizarte zibila indartzearen norabide berean doa, eta norabide horretan aportazio bereziak egiten ditu.

2.3. Paradoxaren lurretan

Zenbait autoreren ustetan, kapitalismoaren ezaugarri nagusia ez datza jabetza harremanetan, baizik beste dimentsio honetan: arrazionalitate ekonomikoa mugarik gabe hedatzean. Historian zehar arrazionalitate honek muga garrantzitsuak izan ditu, gizarte bizitzaren antolamenduan bestelako arrazionalitate edo giza-logika erlijioso, kultural edo sozialak garrantzi handikoak izan baitira. Kapitalismo liberalak arrazoi ekonomikoa arrazoi goren bihurtu du, edo are

gehiago, gainerako logikak oro arrazoi ekonomikoaren esparrura irensteko prozesua jarri du martxan.

Arrazionalitate ekonomikoaren hedatze hazkorrak (lurralde guzietara, bizitzako alor guztietara) mila aurpegi ditu, eta horren aurrean bestelako logikei eusten edota sortzen saiatzea da garapen-eredu alternatiboen iparra, zenbaiten ustez zibilizazio-aldaketaraino heltzen den paradigma aldaketa aldarrikatuz. Lehia horretan nola kokatu autoeraketa ekonomikoaren ekarpena?

Autoeraketaren zenbait dimentsio (kudeaketan partehartzea, irabazietan partehartzea...) egungo kapitalismoan martxan den garapen-ereduaren baitako tresna izan daitezke.

Autoeraketa ekonomikoaren ideia, eta bereziki autoeraketaren zenbait dimentsio (kudeaketan partehartzea, irabazietan partehartzea...) egungo kapitalismoan martxan den garapen-ereduaren baitako tresna izan daitezke, eta dira. Azken hamarkadetan, bereziki *kudeaketan parte hartze*ari dagokion dimentsioa bultzatu nahian ari dira mundu zabaleko enpresak. *Management* modernoak edo *'enpresa kultura berria'* deiturikoak langileen autonomia eta erabaki esparruak indartu nahi ditu, horrela berauen motibazioa handitu eta enpresaren irabaziak hobetzeko. Langileen inplikazio eta partehartzea enpresen lehiakortasunaren gako nagusietakoa da gaur egun, gertatutako aldaketa kultural eta teknologikoen eraginez. Inplikazioa bilatzeko behar horretatik abiatuta, autoeraketari dagozkion hainbat prozedura bereganatzen ari dira enpresa asko, kudeaketan nahiz irabazietan langileen partehartze aktiboa sustatuz.

Prozesu honek badu irakurketa ilun bat. Goraxeago aipatu dugun arrazionalitate ekonomikoaren gailentzearen ikuspegitik, zera dakar *enpresa kultura berriak*: planteamendu ekonomizistak are gehiago hedatzea. Izan ere, garai batean langileen 'arimak', gogoak edo proiektu pertsonalak behintzat enpresaren arrazoi ekonomikotik at geratzen baziren (aurkakotasunez edo, gutxiekin, mesfidantzaz norbere mugak jarriz), orain, *management* modernoarekin, langileak bere egiten ditu enpresaren helburuak, gurpil horretan gogo-bihotzak

integratuz. Eta hain justu autoeraketari lotutako mezu, dimentsio eta prozedurak dira horretarako tresna bezala enpresak darabiltzanak. Autoeraketaren prozedurak, beraz... kapitalismoari darion arrazionalitatearen hedatzaile eraginkor. Autoeraketaren prozedurak, langileen gogoak enpresen errentagarritasun helburuen mendera kolonizatzeko bide. Autoeraketaren prozedurak, egungo garapen-eredu industrial produktibista eutsiezinaren baitako lehiakortasun faktore. Perbertsio sotila salatzen dute hemen hainbat ahotsek: giza-balioak produktibitatearen zerbitzura jartzea.

Autoeraketari lotutako mezu eta prozedurak erabiltzen ditu management edo enpresa kultura berriak, langilea inplikatzeko tresna moduan, produktibitatea indartzeko, kapitalismoari darion arrazionalitate ekonomikoan txertatuz langileen gogoak.

Eta, haratago joanez, gauza askotan enpresa kultura berriaren proposamene-tan aurreratuen dabilzan zenbait kooperatiba ez ote dira *balioak zerbitzura jar-tze* horretan puntako? Ez ote dute, azken finean, garapen-eredu eutsiezin honetatik tiratzen, arrazionalitate ekonomikoa bere langile-bazkideengan sakonago txertatuz? Ez ote ditu langileak bihurtzen makinaria produktibistaren bultzatzaile konbentzituago, partehartzaileago eta *alaiagoak*?

Irakurketa ilunaren ondoan, irakurketa argitsuagoa. Eztabaida liteke enpre-setan autoeraketaren prozedurak sartzearen kausa nagusia zein izan ote den: teknologien aurrerapena, kapitalaren irabaziak gehitzeko beharra, kontrol sozial eta ideologikoa, ala jendearen kultur maila hazkorra eta partehar-tzearen aldeko presioa. Edo guztiak nahasian. Kausak utziz, ondorioei begi-ratzen badiegu, hauek ere bide desberdin eta nahasiak har ditzaketela ohar-tuko gara. Batetik, irakurketa ilunean esan dugun moduan, produktibitatea-ren arrazionalitatean txertatzen ditu langileen gogoak. Bestetik, ordea, per-sonen autonomia-esparru batzuk zabaltzen ditu, mugatuak eta produktibita-tearen zerbitzura, baina zera pentsa liteke: esparru horiek zabaltzeak proze-su demokratikoen aldeko *birusak* sartzen dituela enpresa munduan.

Enpresen izaera heteronomikoa eta ipar produktibista mantenduta ere,

horren barruan zenbait mekanismo aldatzeak beharbada partehartzean atzerazinezko konkistak ekar ditzakete oharkabeen. Edo atzerazinezkoak ez badira ere, pentsa liteke gutxienez beren errealitatea eraldatzeko elementuak sartzen dituela enpresen metabolismoan: erabakimen esparru batzuk irekitzen ditu, jendearen partehartze-esperientzia handitzen du, belaunaldi berrien espektatiba eta eskakizunetan eragiten du...

Hala ere, enpresetan pertsonen autonomia-esparru batzuk zabalduz (hauek mugatuak izan arren eta produktibitatearen zerbitzura egon arren), prozesu demokratikoen aldeko birusak sor daitezke enpresaren barruan.

POTENZIAL ERALDATZAILEA

Pentsamendu dialektiko eta konplexuan saiatu behar dugu paradoxa hau kudeatzeko. Autoeraketa ekonomikoaren prozeduren txanpon berean datoz, batetik, langileen gogoak produktibitatearen menera kolonizatzeiko arriskua eta, bestetik, potentzial eraldatzailea.

Autoeraketa ekonomikoaren prozeduren txanpon berean datoz, batetik, langileen gogoak produktibitatearen menera kolonizatzeiko arriskua eta, bestetik, potentzial eraldatzailea.

Sartu berri dugun *potenzial* hitza da gai honen gakoetako bat. Kontzeptu horrek egoki adierazten du autoeraketa ekonomikoaren kokamodua, errealitate kapitalistaren baitan. Autoeraketaren prozedurek kapitalismoaren arrazionalitate ekonomikoa indartzen dute, baina aldi berean beronetan eraldaketa funtsezkoak sortzeko potentziala dute. Potentzial hau bi mailatan jarriko dugu. Batetik, azkenurreko paragrafoan esan dugun moduan, autoeraketaren prozedurek (prozedura solte eta ahulenez ere) enpresaren metabolismoaren barrutik aldaketak sartzeko eta etorkizuneko alda-gogoak prestatzeko potentziala dute.

Autoeraketaren prozedurek kapitalismoaren arrazionalitate ekonomikoa indartzen dute, baina aldi berean beronetan eraldaketa funtsezkoak sortzeko potentziala dute enpresaren metabolismoa barrutik aldatuz eta etorkizuneko aldagogoak prestatuz.

Bigarren maila sakonago batean, potentzial eraldatzailea handiagoa da planteamendu autoeratzailerik maila desberdinetan artikulatzen bada. Alegia, antolatzeko-prozeduretatik haratago badoa, eta erabakimenaren dimentsio desberdinak biltzen baditu. Lanpostuko edo kudeaketa mailako erabakimena jabetzaren erabakimen politikoarekin uztartzen bada, jabetza errealerara hurbilduko da autoeraketa ekonomikoa. Eta jabetza errealerara hurbildutako autoeraketa ekonomikoa 1.2. atalean aipatu dugun autoeraketaren proiektu sozio-politiko zabalagora bideratzen bada, edo berau ipar hartuta jokatzeko badu gizarlean, orduan norabide indartsuagoa har dezake bere potentzial eraldatzaileak.

Errazena egin dugu: *eraldatzaile* adjetiboa jarri diogu aipatzen ari garen potentzialari. Adjetibo horretan edozein adiera sar liteke, dena baitoa aldatzen eta indar guztiak baitira eraldatzaile, alde batera edo bestera. Giza (ber)duintasunaren ildorantz gizarlean sakonki eraldatzea aldarrikatzen duten indar asko sistema kapitalista gainditzeari buruz mintzo dira. Beste batzuek, sistema aldaketatik haratago, zibilizazio-berritzea aipatzen dute, mendebaldeko sustrai indoeuroparretatik sortutako zibilizazio industrialaren aurrean biziaren duintasunak eredu guztiz berria behar duelakoan.

Potentzial eraldatzailea handiagoa da planteamendu autoeratzailerik maila desberdinetan artikulatzen bada, eta autoeraketaren proiektu sozio-politiko zabalagora bideratzen bada.

Alde batetik edo bestetik, sakonago edo axalago, errealtate kapitalista globaletik haratago *beste mundu bat posible dela* dioten askotariko indarren artean kokatzen da autoeraketaren eraldaketa-norabidea. Eta kokapen horretan,

bere-berea duen norabide-ildoak dakar. Hurrengo atalean ildo hau apur bat gehiago xehetzen saiatuko gara.

Errealitate kapitalista globaletik haratago beste mundu bat posible dela dioten askotariko indarren artean kokatzen da autoeraketaren eraldaketa-norabidea. Eta kokapen horretan, norabide-ildoak propioak dakar.

2.4. Autoeraketaren gizarte-proiektuaren norabidean

Autoeraketa ekonomikoa kokatzeko saioan pausorik ausartena dator ondoren: autoeraketaren gizarte-proiektu zabalagoan kokatzea, norabide horretan bere zentzua hartzen duen elementu moduan.

Lehen esan dugu autoeraketaren kolore gamaren muturrik gorrienean -edo ohiko begiratuan ikusi ere egiten ez den frekuentzia infragorrian oraindik-, autoeraketa paradigma oso bezala ulertuko genukeela: maila txikiko antolaketatik hasirik gizarte-proiekturainoko ereduak. Gizarte-bizitzako eremu guztiak pertsona eta komunitateen erabakimen autonomoan oinarritu nahi dituen paradigma zabala. Ipar bat duke proiektu honek: gizarte autoeratu(goa). Egitasmo sozio-politikoak ari gara, *politiko* hitzaren zentzurik jatorrizkoenean.

Eredu sozio-politiko autoeratuak, eremu guztietan erabakimen autonomoa garatuko duena, izan daiteke autoeraketa ekonomikoaren iparra. Ipar lausoa, egia esan.

Ipar aski lausoa da berau, egia esan. Gizarte autoeratuaren ideiak, iraganeko ideologietan izan duen presentzia gorabehera, gaur egun ez du berau sostengatzen duen errealitate politiko edo mugimendu egituraturik. Bestetik, ordea, begira diezaiegun globalizazio neoliberalaren aurka antolatzen ari diren esperientzia eta indar askotarikoei: beren praxian eta mezuetan autoeraketaren ideia modu desberdinetan agertzen da, sakonean dagoen intuizioa edota jai

gabe dagoen ernamuina bailitzan. *Ernamuin* diogu, esatekotan, oraingoz behintzat ez baita diskurtso izatera indarrez iristen.

Ipar honek, bere lausoan, zentzu eta indar berezia eman diezaioke autoeraketa ekonomikoaren potentzial eraldatzailerari. Norabidea, hezkuntzarako iparra eta etorkizun-ikuspegi-a eman diezazkioke.

Ipar honek, bere lausoan, zentzu eta indar berezia eman diezaioke autoeraketa ekonomikoaren potentzial eraldatzaileari. Norabide bat ematen dio, eta hori ez da kontu hutsala: proiektu zabalago batean kokatzeak ematen duen norabidea indar-emailea baita autoeraketa ekonomikoa etengabe biziberritzeko. Izan ere, autoeraketa ekonomikoak errealitate kapitalistan iraungo badu, eta are, izaera autoeratuan garatuko bada, *elikatze* lan handia egin behar du. Praxi demokratikoak etengabeko hezkuntza-lana, motibazio-lana eta ikuspegi(bisio)-lana eskatzen baitu. Eta elikatze lan horren bidea laburra da norabide-markorik gabe. Edo markoa baino gehiago, norabide-irekidurarik gabe. Gabezia horixe da, hain zuzen, gaur egungo lankidetzaren hezkuntzaren hutsuneetako bat.

Norabidea izateak, beraz, elikatze lanerako arnasa eta ikuspegi-zabaltzea dakar. Besterik ere badakar, gainera. Autoeraketa ekonomikoko enpresen jarduna, bereziki beren gizarte-konpromisoa garatzerakoan, zentzu bati begira orientatzen du (*norabideratzen* du esango genuke, hitz itsusi batez, norabidearen funtzioa hobeto adierazteko). Azken finean, elikatzean duen funtzioaz gain, autoeraketaren proiektu sozio-politikoa intuizio lauso moduan izateak pistak eman diezaioke autoeraketa ekonomikoko enpresa edo esperientzia bati: gizarte-konpromisoko ekintzak bideratzeko, gizarte zibileko sektore autoeratuekin aliantzak egiteko, koiuntura sozio-politiko jakinetan nola jokatu pentsatzeko, hazkuntza eta hedatze estrategiak handik edo hemendik bideratzeko. Hitz batean, ipar bat eman diezaioke ².

Autoeraketaren gizarte-proiektua norabide lausotzat jo dugu, eta ez da gure asmoa hemen pentsamendu egituratuaren forma ematea. Hala ere, ideia

honen inguruan ikusten ditugun ezaugarri batzuk aipatzeak merezi du behar bada:

— Izaera malgua du autoeraketaren gizarte-proiektuak. Autoeraketaren beraren izaeragatik, helburuak edo iparrak adinako pisua, edo handiagoa, du bideak berak. Hau da, kontua ez da eraldaketaren jomuga gizarte autoeratua izatea soilik: eraldaketaren prozedurak berak izan behar du autoeratua.

Autoeraketa, izan ere, jardun bat da, jomuga baino gehiago. Eta autoeraketaren gizarte-proiektu batean biak uztartuz gero, jomugadun jarduna, jardundun jomuga. Hala, beste gizarte-utopia gehienetan baino gehiago, identifikazio eta koherentzia estuan urtzen dira helburua eta bitartekoa. Artikulatuta ezezik, fusionatuta daude, eta bidea helburu bihurtzen da, iparra lausotuta dagoen unetan ere.

(2) Arrasateko Kooperatiben Esperientzia adibide moduan har dezakegu, autoeraketa-proiektu lauso zabalago batek izandako tokiaren gorabeherak kasu konkretu batean ikusteko. Ikerketa oso bat eskatuko luke horrek. Baina hitz gutxitan esan daiteke Arrasateko esperientziaren lehen hamarkadetan argi ikusten dela bultzatzaileek zeukaten ipar edo norabidearen bikoiztasun hori. Batetik, kooperatiba izaera bera ere ez zen helburu bat, “esperientzien prozesu dinamiko” batean helmuga jakinik gabeko abiatze bat baizik. Ipar egituraturik ez, beraz. Bestetik, ordea, Arizmendiarietaren pentsamendu produkzioan hor agertzen da, ezinbestean, autoeraketaren norabide zabalagoa, arnas luzeko gizarte-eraldasmoaren iparra. Arrasateko kooperatiben esperientzia norabide zabal horretan kokatzen du Arizmendiarietak: kooperatibak gizarte-eraldasmo zabalgorako tresna dira, ez beren baitan helburu. Teoriaz gaindi, esan liteke praxian ere norabide lauso horrek bere funtzioa bete zuela Arrasateko esperientzian. Esperientzia honek, batetik, industriaz gain kontsumo-enpresetara, bankuen alorrera eta gizarte-segurantzara zabaldu zituen autoeraketaren printzipioak, besteak beste. Bestetik, hezkuntza munduan ere erakunde autoeratuak sortu zituen. Baserritarren munduan autoeraketa esperientziak martxan jartzen saiatu zen. Halaber arrantzale munduan ere, arrakastarik gabe baina. Oraindik esperientziaren printzipio nagusietan hor agertzen da lankidetzaren ideia hedatzeko eta ildo horretako beste indarrekin batera aritzeko konpromisoa.

Arrasateko kooperatiben praxiaren eta zentzuen bilakaeraz luze idatz liteke, eta aski gai konplexua da, baina esan liteke norabide lausoaren lausoagotzea gertatu dela esperientzia tamainaz handitzen eta lehia ekonomikoan murgiltzen joan ahala. Egungo kooperatibisten gogoetan norakoa, zertarakoa, iparra, autoeraketaren gizarte-proiektu bati bagagozkio, lausotik gora aski gantutua dagoela esan liteke, urruneko dimentsioan guztiz norabidegabeta ez dagoenean. Diagnostiko honen kontzientzia gero eta nabarmenago sumatzen da kooperatibisten artean, eta eragin zuzena du kooperatiben egungo bilakaera, ezintasun eta mugetan.

Autoeraketaren gizarte-proiektua malgua da, helburuak adinako pisua du bidea bera autoeratu izateak.

— Izaera txertatu irekia du autoeraketaren gizarte-proiektuak. Ea lortzen dugun adjetibo pare hau azaltzea. Konbinaketa garrantziko bat dakar autoeraketak: alde batetik praktika alternatibo bat eraikitzen du eta bestetik kapitalismoan (edo indarrean dagoen ekonomi-sisteman) txertatzen da. Autoeraketak *funtzionatu* egiten du sistema ekonomiko ez-autoeratuetan, funtzioak betetzen ditu. Horrekin lotua dago 2.3. atalean aipatu dugun paradoxa, indarrean dagoen sistema indartzeko dimentsioa. Baina sistema ekonomiko horretan txertatuz, benonetan funtzionatuz, zenbait txertok zuhaitzari egiten diona lor dezake: txertotik gorako zuhaitzaren eta frutuen izaera aldatzea. Alde batetik, beraz, dimentsio batzuetan praxi alternatibo bihurtzen da autoeraketa eta, bestetik, gizarte-proiektu autoeratu baterako hazi eraldatzaile izan liteke.

Indarrean dagoen sistema ekonomikoan txertatuta dago autoeraketa ekonomikoa, funtzionatu egiten du. Pragmatismo horretatik abiatzen da, edozein kasutan, bere eraldaketa eta bere dimentsio utopikoa.

Zentzu honetan utopiaren zero-dimentsioa eta pragmatismoaren lur-dimentsioa modu berezian konbinatzen ditu autoeraketaren proiektuak, beharbada zero-dimentsio hori askotan galduta edo urrunduta, baina beti lur-dimentsioari praktikan lotua.

— Prozesu-izaera pausatua du autoeraketaren gizarte-proiektuak. Proiektu honek behar duen eraldaketa denborari berea emanaz mamitzen da. Autoeraketaren prozesua esperientzia-prozesua da, heltze-prozesua. Heltze-prozesu honetan lehentasuna galtzen dute goi-mailako prozesu politikoek eta bote-re-ekintzek. Zera du bere aurpegi nagusietako bat: hezkuntza-prozesua dela. Esperientzia-prozesua eta esperientzia praktikoa hauei lotutako hezkuntza-prozesua da, beraz, autoeraketaren proiektua. Barreiatua, soziala, behetik gorakoa.

Esperientzia-prozesua eta esperientzia praktikoei lotutako hezkuntza-prozesua da autoeraketaren proiektua.

Pausotua esan dugu, baina *pausotua* esan beharko genuke. Kontua ez baita prozesuaren geldotasuna azpimarratzea, baizik eta berau pausoka doala aditzera ematea, esperientzia-, heltze- eta hezkuntza-prozesu izaerari berez dago-kion moduan. XXI. mendearen hasierako koiuntura global konkretuan, adibi-dez, ondorengo irakurketa izan dezake izaera pausotu honek: autoeraketa ekonomikoaren funtzioa paradoxikoa bada ere, garrantzitsua da lanaren jabetza errealean aurrerapausoak ematea. Pauso hori emanik, progresiboki garapen-eredu egokiagoaren ideia mamitzen joan daiteke behetik-gora, jabetza errrealak ematen dituen erabakimen esparruak oinarri hartuz.

— Dimentsio anitzeko garapenarekin lotura du autoeraketaren gizarte-proiektuak. Garapen-eredua dugu, zalantzarik gabe, gaur egungo mundu-ikuskerak politiko eta sozio-ekonomiko desberdinen korapilo nagusietakoa. Hazkuntza *versus* garapena, formulatzen dute batzuek. Balizko garapena dimentsio ekonomikora eta beronen hazkuntza etengabera makurtzen duen paradigma indartsuaren aurrean, garapenari bere dimentsio desberdinak (ekonomikoa, soziala, kulturala, politikoa, psikologiko-izpirituala...) aitortzea eta berauen arteko oreka zaintzea planteatzen dute, nolabait, globalizazio neoliberalaren aurrean bestelako globalizazioa planteatzen duten indarrek. Autoeraketaren proiektua sakonean lotua dago garapena ulertzeko modu zabalarekin.

Pertsonen eta komunitateen *erabakimen autonomoan* oinarritutako paradigma ez da bateragarria hazkuntzan ardaztutako dimentsio ekonomikoaren gailentze murriztaile-bortxatzailearekin. Izan ere, erabakimenak inplikazio sakonak ditu: alor guztietan pertsoneri eta komunitateei *dariena garatzea* hartzen du berezko joera. Eta *darien* hori, pertsona eta komunitateen beharren edota nahikunde-en sorta hori, dimentsio anitzekoa da. Beharren eta nahikundeen izaera dimentsioaniztun horri erantzutea da, hain zuzen ere, garapen oso eta orekatu baten abiapuntua.

Autoeraketaren proiektua sakonean lotua dago garapena ulertzeko modu zabalarekin. Izan ere, erabakimenean oinarritzen denez, alor guztietan pertsoneri eta komunitateei dariena garatzea du berezko joera.

Ur handi samarretan sartuz, ekologiaren zentzu sakonarekin baditu loturak autoeraketaren gizarte-proiektuak. Naturaren aldeko planteamendu bat izate-tik haratago, izatearen dibertsitatearen sakratutasuna aitortuz beronen oreka zaintzea da ekologiaren muina: guztien guztiekiko harremanen artea da, azken finean, ekologia. Guztien guztiekiko harremanen arte horrek, zeharbide asko-tatik, autonomiadun eraketara hurbiltzen gaitu. Baina utz dezagun intuizio hau etorkizunean garatzeko.

— Irekitasun intelektuala, sormena eta moldakortasun praktikoa behar ditu autoeraketaren gizarte-proiektuak. Zergatik irekitasuna? Ezer egotekotan, intuizio eta praxi askotarikoen multzoa dago autoeraketaren proiektuaren azpian, eta lehen esan dugun moduan, bere lausoan ez du gorputz teoriko monolitiko sendorik, ez eta etorkizun-bisio oso definiturik ere. Ideia aldetik irekita egotera darama honek autoeraketaren proiektuan engaiatuta dabilen era-gilea: bere esperientziaren irakaspén ustekabekoei irekita, besteen esperien-tzia askotarikoen irakaspenei irekita, gainerako ideologien ekarriei irekita eta, batez ere, komunitateei darien horretatik datozen formulazio aldakorrei irekita. Autoeraketa bera prozesu ireki bat da, eta berau sostengatzen duen ideia-mul-tzoa ere ezinbestean kutsatzen da irekitasun horrekin.

Autoeraketa bera prozesu ireki bat da, eta berau sostengatzen duen ideia-multzoa ere kutsatzen da irekitasun horrekin.

Autoeraketa, neurri batean, etengabeko eraketa prozesua da. Komunitateei darien horri adi egon behar duelako eta berau aldakorra delako bihurtzen da autoeraketa etengabeko berreraketa prozesu, eta honek sormena eskatzen du. Erantzunak askotarikoak dira, ez dago patroi erabatekorik. Sormenaren alda-

menean jarri dugu moldakortasun praktikoaren garrantzia. Izaera txertatuan esan ditugunekin aski nabarmendu dugu eguneroko praxiaren errealitatean moldatzeak autoeraketaren proiektuan duen zentraltasuna. Zentraltasun honek ematen die zorua irekitasun intelektualari eta sormenari.

Hemen itxiko dugu autoeraketaren gizarte-proiektuaren ezaugarri batzuetan egindako gainbegiratu arina, berriro ere gogoratuz berau ipar lauso moduan ulertu dugula, edo pentsamendu egituratu bat baino gehiago esperientziei darian intuizio-multzo moduan. Goazen, orain, abstrakzio maila apur bat maila konketuagora apalduta, autoeraketa ekonomikoak egungo globalitatean dituen ekarpen eta potentzial nagusiei begiratua ematera.

3. AUTOERAKETA EKONOMIKOAREN POTENTZIALAK ETA MUGAK

Autoeraketa ekonomikoa globalitatean kokatzeko saioa egin dugu aurreko kapituluari. Kapitulu honetan apur bat gehiago zehaztu nahi genuke zeintzuk izan daitezkeen autoeraketa ekonomikoak gaur izan ditzakeen ekarpen eta potentzial bereziak, bai eta beronen muga batzuk ere.

Honetarako, lehen atalean aipatutako autoeraketaren grisen eta koloreen eskalan, gradurik altuenetan jarri nahi dugu arreta nagusia. Autoeraketa ekonomikoaren potentzialak aipatzen ditugunean, gehienetan kooperatibismoaren eskakizun garaietara hurbiltzen diren enpresez ariko gara. Izan ere, enpresa autoeratuen continuum guzti horretan, maila hauek iruditzen zaizkigu egungo globalitatean potentzial eraldatzaile handiena dutenak. Gora xamar begiratuko dugu, beraz, etorkizunerako baliagarria izan litekeen gogoeta bat egin nahian.

AUTOERAKETA EKONOMIKOAREN POTENTZIALAK

Ekarpen eta potentzialez hasteko, zortzi aipatuko ditugu hemen. Batzuk gehiago dira ekarpen errealak, eta beste batzuk aldiz gehiago dute potentzialetik une

honetako benetako ekarpenetik baina. Guztien artean gehixeago hurbil gaitzke autoeraketa ekonomikoak XXI. mendearen hasieran eskain dezakeenera.

3.1. Gizabanakoaren eta komunitatearen arteko oreka artikulatzeko potentziala

Pertsonaren eta komunitatearen arteko oreka da Modernitatearen korapiloetako bat, edo gaintu gabeko ikasgaietako bat. Oreka gaizto horretan kokatzen da, hain zuzen ere, autoeraketa ekonomikoa, eta hori du bere ekarpen berezi bat. Interes indibidual eta kolektiboen arteko harmonizazioan praktika interesgarriak garatu ditu autoeraketa ekonomikoak.

Interes indibidual eta kolektiboen arteko harmonizazioan praktika interesgarriak garatu ditu autoeraketa ekonomikoak.

Gizabanakoaren eta komunitatearen interesak uztartzeko ekarpen konkretu hauen erdian kokatu beharko genuke jabetza kooperatiboa. Jabetza pribatu indibidualaren eta jabetza estatalaren arteko dikotomiatik haratago, autoeraketa ekonomikoan jabetzaren eskubideak langile taldeari dagozkio, lan-komunitateari. Hor, lan-komunitatean, autonomia pertsonalak bere tokia du, baina beste autonomia pertsonal multzo batekiko igurtzian osatzen du talde-proiektu bat. Erabakimen pertsonaletik eraikitako arkitektura da komunitate autoeraketa, eta ondorioz, pertsona autonomo baina elkartuen arteko igurtzietan sortzen diren tentsio-distentsioen gunee.

Maila zabalagoan komunitate txikien eta zirkulu handiagoen arteko oreka artikulatzeko joera izan du autoeraketak. Autonomia eta konpromisoa uztartzeko borondatearen emaitza moduan, interkooperazio sareak errealitate eta potentzial dira autoeraketa ekonomikoko hainbat esperientzietan.

3.2. Garapenerako tresna izateko potentziala

Garapena 'pertsonen hautabide eta ahalmenen zabaltze prozesu orekatu' gisa definituz ekingo diogu bigarren potentzial honi. Ikuspegi honetatik, autoerake-

ta ekonomikoa garapenerako tresna izan daiteke. Zergatik? Garapena, eta hasteko oinarrizko garapen materiala, planetako zati handi baten behar larri moduan planteatzen den uneotan, pertsonen euren beharren arabera garabi-deak sortzeko aukera eskaintzeko potentziala izan dezakeelako. Dagoeneko potentzial hau errealitate bat da komunitate askorentzat.

2.4. puntuan esan dugu autoeraketa ekonomikoak lotura duela garapena ulertzeko modu multidimentsionalarekin. Garapenak, egia esan, mota eta gustu guztietako adierak hartzen ditu. Autoeraketa ekonomikoa garapenerako tresna izan daitekeela diogunean zertaz ari gara? Ze adjetibodun garapena bultzatzen du?

— **Garapen endogenoaz** hitz egin beharko genuke hasteko: komunitateen bar-netik abiatutako prozesuak dira autoeraketa ekonomikoak martxan jartzen dituenak. 2.1. atalean aipatu dugun eredu autozentratuen ideiarekin bat dator garapen endogenoaren ideia, izan ere, komunitatea erreferentzi puntu nagusi izanik, bar-netik eta behetik gora eraikitako prozesuez ari gara. Eskura diren baliabideak autogarapenerako erabiltzeaz.

— **Garapen sustraitua** bultzatzen du autoeraketa ekonomikoak, ondoren datoren 3.3. puntuan azalduko dugun moduan. Sustraitzeak komunitatearen garapen multidimentsionalarekin lotura du, lur batean sustraitua egoteak gizarte horri sortzen zaizkion nahikunde eta beharrei lotuta egotea esan nahi duelako.



Garapen endogenoa, sustraitua eta multidimentsionala bultzatzeko potentziala du autoeraketa ekonomikoak.

— Komunitate-garapenean txertatutako **garapen pertsonala** bultza dezake autoeraketa ekonomikoak. Enpresa autoeratuak baditu pertsonarekiko arreta berezia adierazten duten ezaugarri bereizgarriak. Erabaki ahalmena lana jartzen duen pertsonaren esku egotea eta kapitala, aldiz, tresna huts izatea da horretarako oinarrietako bat. Pertsonaren zentraltasunak nolabaiteko forma hartzen du autoeraketan, eta honi lotuta garapen pertsonala ahalbidetzen duten arauak

ematen dizkio enpresa autoeratuak bere buruari, teorian behintzat: demokrazia-
ren prozedurak erabiltzea, kudeaketa eta informazio argitasuna bermatzea, lan-
gileen formazio eta hezkuntzari arreta berezia eskaintzea, barne promozioa sus-
tatzea. Ohiko ezaugarri hauez gain, autoeraketa ekonomikoak potentzial inte-
resgarria eskaintzen du beste hainbat dimentsio berriri arreta jartzeko, pertso-
nen garapenari begira: lanaren eta aisiaren arteko oreka, hizkuntza eta identita-
teen errespetua lanean, eta, oro har, belaunaldi berrien kezka-gaiak izan daitez-
keen beste dimentsioak. Autoeraketa ekonomikoa tankera horretako aldarrika-
penekin harbera izan daiteke eta irekitasun bereziz joka dezake, hain zuzen ere,
pertsonek erabakimenean oinarritzen delako.

— **Garapen komunitarioa.** Garapenaren izaera sustraituari loturik, autoeraketa
ekonomikoak berezkoa du komunitate baten beharrei erantzuteko joera, eta
garapen komunitarioarako akuilu izan liteke. Hasteko, garapen ekonomiko
errotua eskaintzeko baliabideak ditu eskura autoeraketa ekonomikoak.
Aberastasuna sortu eta banatzeaz arduratzea izan daiteke gizartearekiko kon-
promisoaren urratsik naturalena, eta batez ere, lanpostu sorkuntzan arreta
berezia jartzea, aurreraxeago ikusiko dugun moduan. Bestetik, potentzial
bereziak ditu enpresa autoeratuak bere eragina enpresaren esparrutik harata-
go luzatzeko, eta gizartearen beste esparru batzuekin konprometitzeko (ar-
lo sozial nahiz kulturean). Dimentsio ekonomikoa edo, zehazkiago, enpresa
ekimena komunitatearen garapen osoagoaren zerbitzura ulertzea esanahi du
honek.

Potentzial bereziak ditu enpresa autoeratuak bere eragina
enpresaren esparrutik haratago luzatzeko, eta gizartearen
beste esparru batzuekin konprometitzeko, arlo sozial nahiz
kulturean. Baita gizarte mugimenduen ekarpenei adi ego-
teko ere.

Autoeraketa ekonomikoak badu potentziala beste esperientzia autoeratuarekin
loturak eta lankidetzaren harremanak sortzeko, gizarte-garapenaren beste alorre-
kin lotuta egonez. Bestek beste, gizarte mugimenduei darian potentzialari

zabalik egoteko aukera dute, beren aldarrikapen eta motibazioen iturri eraldatzaitetik edanez, eta genero, ekologia, denboraren banaketa, garapen eredu eta abarri buruzko auziei arreta jarritz.

3.3. Sustraitzeko potentziala

Aurreko puntuan aipatu dugu garapen sustraitua, baina izaera sustraituari aparteko puntu bat eskainiko diogu, egungo globalitatean duen esanahi bereziagatik. Autoeraketa ekonomikoak izaera sustraitua du, inguruko komunitate-arekiko lotura berezko joera du, pertsonen erabakimenean oinarritzen delako eta pertsonak ingurune batean txertaturik daudelako. Herri batean, giza-geografia zehatz batean lotzen da autoeraketa ekonomikoa.

Kapital *aberrigabeak* mugitzen duen globalitate-eredu honetan, autoeraketa ekonomikoak oso bestelako izaera erakusten du. Kapitala lana jartzen duten pertsonena izanik, banatua dago, eta pertsona horiek enpresako partaide izaiteaz gain, komunitate edo lurralde bateko kide diren neurrian, enpresaren ekoizpen jarduera ere gune geografiko horretan errotzen da.

Autoeraketa ekonomikoa giza-geografia zehatz batean errotzen da, lur bati lotua dago.

3.4. Enplegua sortzeko eta enpleguari eusteko potentziala

Gorago aipatu dugun gizartearekiko konpromisoak forma ezberdinak har ditzake, baina beharbada, lehen begiratuan, agerikoena lanaren aldeko apustua dugu. Lanpostuak sortzeko eta lanaren alde borrokatzeko borondatea nahikunde agerikoak izan dira autoeraketa ekonomikoan.

Lanpostuak sortzeko eta lanpostuen alde borrokatzeko borondatea berezko bokazioa izan da autoeraketa ekonomikoan.

Autoeraketa ekonomikoak enplegua sortzeko gaitasuna erakutsi du. Kooperatiben kasuan, Munduko Kooperatiben Aliantzak mundu mailan ehundaka milioitan kokatzen du kooperatibisten kopurua, sektore gehienetan hedaturik: nekazaritzatik hasi eta eraikuntza, industria eta zerbitzuetara.

Langabezia arazo estrukturaltzat agertzen duen globalitatean, ekarpen hori egin egiten du autoeraketa ekonomikoak: lana sortzea eta egonkortasun izpi batzuk bermatzea. Lanpostu egonkorra sortzea berezko bokazioa da autoeraketa ekonomikoan. Langilea bazkidea den aldetik, jabe ere bada, eta enpresaren norabide kolektiboari loturik egongo da bere etorkizuna ere. Bestetik, aipagarria da autoeraketa ekonomikoak autoenplegu formula gisa duen potentziala merkatuaren logikak bazterturiko gizarteko sektore eta kolektiboentzat.

Autoeraketak lanpostu sorkuntzan duen funtzioa aipatu dugu, gainera lanpostu egonkorragoak sortzeko duen gaitasuna azpimarratuz. Baina sortzeaz gain, eusteko gaitasuna ere aipatu behar dugu. Autoeraketa ekonomikoa enpleguen defentsari izaera gogorragoa ematen dio, eta gaur egun potentzial interesgarria da hori ere. Krisi eta une latzetan, errentagarriak ez diren enpresei eusteko eta lanaren alde borrokatzeko kooperatibek erakutsi duten ekimena berezia da, zentzu honetan, eta ulergarria, enpresa hauen izaera kontutan hartuta.

3.5. Partehartze integralera hurbiltzeko potentziala

Enpresa autoeratuetan partehartzeak baditu bi arlo. Lehenbizikoa, eta bereziki berari dagokiona, partehartze instituzionala da, enpresaren azken erabakiak gidatzen dituen organo demokratikoetan parte hartzea, enpresaren jabe moduan. Bigarrena, lanpostuko partehartze teknikoa, gehiago edo gutxiago edozein motatako enpresetan gertatzen dena.

Management berriaren haritik enpresa-munduko azken joerak lanpostuko partehartzea indartzearen aldekoak dira. Langileari autonomia esparruak zabaltzea nahi zaizkio enpresan, eta gero eta gehiago bultzatzen dira prozesu produkti-

boan langilearen partehartzea sustatzeko metodoak. Langileari gero eta gehiago eskatzen zaio enpresaren jardunean buru-belarri inplikatu eta enpresaren helburuen alde jokatzeko. Planteamendu honetan langileak teknikoki bere lanpostuan parte hartzen du, baina enpresaren arlo oso bat bere eragin eremutik at egongo da, hau da, enpresako jabetza, kontrola eta emaitzak langilearen eskumenetik aparteko esfera osatzen dute gehienetan. Partehartze tekniko horretara mugatzen da bere egitekoa, ez baitu arlo zabalagoan enpresaren estrategia eta norabidearen ildo nagusien definizioan parte hartzerik izango. Horretan datza, hain zuzen ere, planteamendu hauen sakoneko kontraesana: langilearen autonomiak botere heteronomo baten zerbitzura jarduten du, hots, badu bere lanari dagokionean partehartzeko aukera, baina bere partehartze horren emaitzak kanpotik ezarritako egitasmoaren zerbitzura egongo dira. Diskurtso horietan partehartzea bitarteko huts da benetan garrantzitsuak diren helburuak lortzeko, hazkuntza, etekin ekonomikoa eta lehiakortasuna. Planteamendu ekonomizistak hedatzeko kapitalaren tresna.

Autoeraketa ekonomikoak, partehartzea modu zabalagoan ulertu eta praktikatzeko potentziala du. Enpresako partehartzearen beste alor bat zabaltzen dio langileari: partehartze instituzionala edo politikoa enpresako gobernu organoetan. Langile-bazkideak marko instituzional oso bat du eskura, eta teorian badu bere enpresaren norabidean eragiten duten erabakietan parte hartzeko eskumenik.

Parte hartzeko eredu osotu eta koherente bat lor dezake autoeraketa ekonomikoak, enpresan partehartze instituzionala eta lanpostukoa garatuz.

Autoeraketak une historiko honetan aukera berezia izan dezake partehartzearen bi arloak uztartu eta partehartze integralago baterako pausoak ematen hasteko. Batetik, demokratikoki arauturiko enpresa batean errazagoa eta koherenteagoa izan daiteke lan-metodo partehartzaileak sustatzea, partehartze instituzionalerako aukerak (enpresaren jabe norbera izateak) sinesgarriago egiten duelako lanpostuko inplikazioa bultzatzea. Partehartze instituzionalari

koherentzia emango lioke lanpostuko partehartzea jorratzeak. Bestetik, lanpostuko edo kudeaketa mailako erabakimena, jabetzaren erabakimen politikoarekin txirikordatzen bada, jabetza errealera hurbilduko da autoeraketa. Horra, bada, autoeraketa ekonomikoaren potentziala: partehartze-eredu osotu eta koherente bat garatzea.

3.6. Gizarte-konpromisoarekin jardunbide ekonomikoari mugak jartzeko potentziala

Autoeraketa ekonomikoko enpresek inguruneko gizartearekin konprometitzeko duten joeraz jardun dugu lehen ere. Helburu ekonomikoetan lehiatuz helburu sozialak lortzeko bokazioa du autoeraketa ekonomikoak. Ez du, ordea, joko-zelai errazik. Merkatuaren lehiakortasunak enpresen jarduera esparrua zorrotzki definitu eta joko-arau zorrotzak ezartzen ditu. Tentsioan daude enpresa autoeratuak, helburu sozial eta ekonomikoen arteko oreka-desorekan.

Etika eta ekonomiaren uztarketa aldarrikatu nahian, enpresen *erantzukizun sozialerako* arreta berezia piztu da azken urteotan. Gero eta gehiago dira enpresei irizpide sozialen arabera jokatzeko luzatzen zaizkien eskaerak. Kontsumitzaile, GKE eta bestelako eragileen kezka bihurtu dira enpresen jarduerak eragiten dituzten ondorio ekologiko eta sozialak (kutsadura, lan eskubideen urraketa). Ekinbide enpresariala irizpide etiko-sozialen arabera arautzeko eskakizun horiei guztiei erantzunez, enpresa asko dira beraien funtzio sozialaz, etikaz eta gizarte erantzukizunaz mintzatzen hasi direnak. Zenbait ahotsen ustez makillaje operazio hutsak dira, *etikak saldu egiten baitu*. Beste batzuen ustez, nagusiki helburu komertziala izanik ere, garapen ekonomikoa arautzen hasteko pausoak izan daitezke. Nola kokatu autoeraketa ekonomikoaren potentziala enpresen gizarte erantzukizunaren bolada honetan?

Autoeraketa ekonomikoak bere izaeran dakar txertaturik ardura soziala. Ekonomian egoteko eta enpresa egiteko modu oso bat du, bere ekarpena ezin da barrura begirako enpresa-formula huts batera mugatu. Berezko potentziala

du gizarte konpromisoa garatzeko (gizartearen behar sozialak, kulturalak eta ekologikoak zaintzeko), eta hortik jardunbide ekonomikoari mugak jartzeko.

Autoeraketa ekonomikoak muga batzuk jar dezaizkioke logika ekonomizistari: neurri gabeko hazkuntzari, edozer eta edonola ekoizteari.

Merkatuaren logikak tarte estua uzten du. Baina tarte estu horretan, autoeraketa ekonomikoak muga batzuk jartzen dizkio edo jar diezaizkioke logika ekonomizistari. Mugak jartzeko potentziala du, enpresen jarduera bera estandar sozial, demokratiko eta ekologikoen arabera taxutuz. Hauek izan daitezke mugak jartzeko bide batzuk:

- Enpresen dimentsioari dagokionean, eskakizun tekniko-ekonomikoen ondoriozko neurrigabeko hazkuntza enpresarialari mugak jartzeko aukera errazago planteatzen dezakete enpresa autoeratuek.
- Produktuari eta prozesuei dagokienez, zer eta nola ekoiztu zehazteko baldintza hobekitu autoeraketa ekonomikoak. Adibidez, behar sozialei erantzun egiten dituzten produktuak ekoizteko erabakia hartuz, eta beste batzuk galeraziz. Ekoizpen prozesuetan ingurumena zaintzeko sentsibiltatea garatzea ere gertuago izan dezake, lurraldeari lotutako pertsonen erabakimena izanik enpresaren erabaki iturri.
- Pertsonetikiko arretari lotuta, lan baldintza duinak eskaini eta pertsonaren garapenean ahalegin berezia egiteko bideak zabaltzea gertu dago autoeraketa ekonomikoaren jatorrizko motibazioetatik.

3.7. Interkooperaziorako potentziala

Enpresa autoeratuen izaera autozentratua aipatu dugunean esan dugu horrek ez duela baztertzen besteekiko lotura. Autodependentzia interdependentzian, formulatu dugu.

Autoeraketen arteko lankidetzari interkooperazio deituko diogu. Kooperatiben nazioarteko printzipioetan agertzen den ideia hau maila batean errealitatea izan da, elkartzeko joera aipagarria erakutsi dute enpresa autoeratuek. Elkartzeak indarra ematen du eta askotan biziraupen-desafioei erantzuteko arma izan daiteke.

Erakunde bakoitzaren autonomia eta identitatea errespetatuko dituen loturak sortzea da interkooperazioaren funtsa: kooperatzaileen arteko kooperazioa. Sare egitura da enpresa autoeratuen elkartze-modu naturala, eredu deszentralizatu, erabakimen guneak oinarrian dituen. Zirkulu txikiak zirkulu handiagoekin artikulatzeko saiakerak hainbat dira autoeraketa ekonomikoan, eta aurrera begira aukerak eskaintzen dituen ildo da.

Sektore bereko enpresa autoeratuen loturetatik haratago, elkartzearen potentziala eraldatzaileagoa izan liteke jobide anitzeko sare gisa egituratzen bada. Hainbat ekoizpen-arlotako enpresa autoeratuek loturak egin ditzakete kultura edo eta hezkuntza arloekin lokarriak, begiratua gizartearen garapenean jarri. Autoeraketak eskaintzen dituen esperientzia anitzen arteko loturak izan litezke

2.4. atalean marraztu dugun proiektu sozio-politiko lausoaren habe.

3.8. Elkartasun globalerako potentziala

Interkooperazioaren mailarik zabalenean mundu-ikuspegi globalarekin egiten dugu topo. Gaur egungo globalitatearen arazo politiko eta ekonomiko larriena Iparraren eta Hegoaren arteko amildegia da. Honen aurrean, garapen endogenorako potentzialaz hitz egin dugu gorago. Bestetik, ordea, gizarte teknologizatueta komunitate pobretuekiko elkartasun-mekanismoak erakitzeko badu bere garrantzia, eta honetan autoeraketa ekonomikoak baditu potentzial batzuk.

 Herrialde pobretuenen garapenerako lankidetzari begira, autoeraketa ekonomikoak elkartasun globalerako mekanismoak aktibatzen potentziala izan dezake.

Dimentsio honetan, eta herrialde pobretuenen garapenerako lankidetzari begira, autoeraketa ekonomikoak elkartasun globalerako mekanismoak aktibatze-ko potentziala izan dezake. Potentziala izan dezake, alde batetik, mugiarazten duen balio multzoak elkartasuna goiburu garrantzitsutzat duelako. Bestetik, erabakimena langile-bazkideetan egonik, eta hauek gai honetan sentsibilizatzen doazen heinean, sentsibilitate hori praktikan egikaritzeko mekanismoak eskura dituelako demokrazia instituzionalaren bidez.

Munduko Hegoaldea, errealitate komunitarioetan aberatsa da oraindik, lokarri komunitariodun esperientzia propioen berezko hazitoki, eta etorkizuneko erantzunen dibertsitate erreserbaren parte dira bertako esperientzia sozial eta ekonomikoak ere. Alde honetatik, herrialde teknologizatuetako autoeraketa ekonomikoari aukera anitzeko lankidetzaren eremu potentziala zabaltzen zaio: Hegoaldeko errealitate autoeratuarekin lankidetzaren fluxuak sortzea.

AUTOERAKETA EKONOMIKOAREN ARRISKU ETA MUGA BATZUK

2. atalean aski kokapen konplexua marraztu diogu autoeraketa ekonomikoari egungo globalitatean. Kokapen konplexu horretan, bere potentzialak azpimarratzea interesatu zaigu gehienbat 3. kapituluan. Baina aipatuta utzi nahi ditugu bere arrisku eta muga batzuk ere.

Mugak, hasteko, aurreko atalean aipatutako potentzialek berek dituzte. Izan ere, oso erraza da potentzial horietako asko ezertan ez gauzatzea. Merkatuan funtzionatzeak jartzen dio muga, eta horretara mugatzea du arrisku nagusi.

Goazen arrisku orokor horri lotutako hainbat aspektu azpimarratzera:

1. Ekonomizismoa nagusitzea. Merkatuan jokatzera mugatzearen arriskuaren beste izen bat da. Kasu honetan, autoeraketa barne-formula organizatibo izatera muga daiteke, ipar moduan helburu ekonomiko

soilak dituena, gainerako enpresen ikuspegiak errepikatuz.

Aipatu dugu 2.4. puntuan enpresa autoeratuak indarrean dagoen sisteman txertatuta ere, beronen eraldatzaile izateko potentziala dutela. Izaera eraldatzaile horrek, ordea, potentziala garatzea eskatzen du, eta garatu ezean mekanismo murrizt izatera mugatzen da.

2. Autoeraketa ekonomikoa bere baitan ixtea, autoeraketaren gainerako indarrekin loturak landu gabe. 2.4. puntuan aipatu dugun moduan, autoeraketa ekonomikoa gizarte-egitasmo zabalago batean kokatzeak ematen dio beroni iparra eta norabidea. Eta norabide horretan, gizarte autoeratu(ago) bati begira, autoeraketaren intuizioa garatzen duten beste gizarte-indarrekin (gizarte mailako beste egitura autoeratuekin) loturak lantzea dagokio autoeraketa ekonomikoari. Inolako loturarik landu ezean, iparririk gabeko edo eraldaketa-norabide ahuleko jardun ekonomiko bihurtu liteke.

 Autoeraketa ekonomikoak bere baitan
ixteko arriskua dauka, beste indar sozial autoeratzailleekin
loturak landu gabe, iparririk gabeko jardun ekonomiko
bihurtuz.

3. Teknokrazia gailentzea demokraziari. Enpresa autoeratuak teknokrazia-demokrazia tentsioan daude, aldi berean merkatuari erantzuten eta logika sozialei erantzuten dauden moduan. Demokraziak, ordea, etengabeko elikadura eskatzen du. Arrisku erreala da 'hozte demokratikoa' deituko genukeena: enpresa-erabaki konplexuen aurrean organo soberanoen partehartzea hoztea, formal bihurtzea, eta informazio gehien duen gidaritza teknikoak markatzea benetan enpresaren norabidea. Errealitate gero eta konplexuago batean sarritan erabakiak berehalakoan hartu behar izaten dira eta eraginkortasunagatik gutxiengo baten esku uzten da erabaki ahalmena, botere-gune errealak sortuz, nahiz eta formalki erabakiak organo demokratikoek errefrendatu.

Arrisku erreala da 'hozte demokratikoa' deituko genukeena: enpresa-erabaki konplexuen aurrean organo soberanoen partehartzea hoztea, formal bihurtzea, eta informazio gehien duen gidaritza teknikoak markatzea benetan enpresaren norabidea.

Bere potentzial eta arrisku guztiekin, aipatutako tentsio eta paradoxen aurrean aurkitzen da autoeraketa ekonomikoa. Azken tentsio bat aipatuko dugu, bukatzeko. Estatuaren eta Merkatuaren paperaren arteko eztabaidan aurkitzen gara une historiko honetan, ikuspegi global batetik. Non kokatu autoeraketa eztabaida horretan? Biziki lur labaina da, baina saihestezina.

Joera neoliberalak Estatuaren betebeharrak sozialak zalantzan jarri dituzte, eta hainbat jardun publiko ezabatzen hasi dira, desarauketa eta pribatizazioa bultzatuz. Estatuaren erantzukizun soziala mugatzen edo ukatzen da, osasun, hezkuntza, gizarte segurantza, eta beste hainbat funtzio sozial merkatuak hartu behar ditu, ikuspegi hauen arabera. Beste indar batzuek, aldiz, Estatu indartsua aldarrikatzen dute, ahalik eta funtzio gehien beteko dituen.

Edonola ere, krisian dago ongizate estatua. Eta honek panorama berria marrazten du autoeraketarentzat. Zer funtzio dira Estatuarenak? Zein merkatuarenak? Zein gizartearenak, hots, merkatu-irabazien logikaz kanpo funtzionatzen duten antolakuntza eta sareenak?

Estatua-Merkatua-Gizarte-sarea hiruko horren arteko tentsioan kokatu behar du autoeraketaren ekarpenak. Estatuak uzten dituen hainbat espazio eta zerbitzu (gizarteko ahulenen zainketa, hezkuntza, osasuna...) erakunde autoeratuak bere gain har ditzake, adibidez. Eta honek baditu bi irakurketa. Batetik, tesi neoliberalen ildoan kokatzen dela iduri luke: izan ere neoliberalak ere beren erara gizarteak edo komunitateak funtzioak bere gain hartzea aipatzen dute, eta ildo honetan autoeraketa zuloak estaltzen ari daiteke, Estatuaren arduragabetzearen osagarri izanez.

Estatua-Merkatua-Gizarte-sarea hirukoaren arteko tentsioan kokatu behar du gaur egun autoeraketaren ekarpenak.

Bestetik, ordea, autoeraketaren planteamendua haratago doa Estatuaren funtzioak merkatuaren esku (edo merkatuan lehiatuko diren erakundeen esku) uztetik. Baita Estatuak eta merkatuak bazterrean uzten dituzten funtzioak estaltzeko borondate hutsetik ere. Egia da funtzio edo tarte horiek estali ditza-keela, baina hori eginez, funtzioak betez, pertsoneri eta komunitateei beren buruak autoarautzeko aukera ematen die autoeraketak. Eta hori lortuz gero, Estatuak edota irabazi-asmoek gidatutako erakundeekin konparatuz, bestelako eredu batekin ari da funtzio horiek betetzen. Eta bestelako eredu horrek etorkizun-ikuspegi propio bat marraztu dezake, behetik gorako erabakimen autonomoan oinarritutako gizarte-eredu batean iparra jarritz.



Dorleta auzoa z/g
20540 Eskoriatza
Tel. 943 71 41 57
E-posta: lanki@huhezi.edu
www.lanki.coop



Kooperatibek zer aportatzen dute gaur egun? Zenbateraino dira indarrean dagoen sistemaren tresna eta zenbateraino eraldatzaile? Ze zentzu dauka gaur egun kooperatibismoak eta, zabalago, autoeraketak berak? Badute proiekturik? Edo izan dezakete?

Galdera hauek aurkitu ditugu gure buruetan, eta gure inguruan, bai kooperatibetan eta bai inguru zabalagoan. Egungo globalitateak, izan ere, berritu egin ditu galderak. Eta galdera garrantzitsuak dira, gure motibazioen iparrak ari baitira. Erantzunak eraikitzen hasteko intuizioak badaudela uste dugu. Eta intuizio horiei jarraiki, gogoeta baten hasiera plazaratzen dugu koaderno honetan.

Hasteko, autoeraketaren kontzeptua zedarritu dugu apur bat. Ondoren, autoeraketa ekonomikoa egungo munduan kokatzeko lau ideia landu ditugu. Azkenik, zehatzago, autoeraketa ekonomikoak dituen potentzial eta mugak aletzen saiatu gara. Testuak, abstrakzio eta dentsitate maila handi xamarra dauka, aitortzen dugu, trinko eta labur azaldu nahi izan baitugu sortu zaiguna. Gogoeta eta eztabaidarako abiapuntu izatea nahiko genuke.